



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2021EKO UZTAILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK** **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko uztailaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Ricardo Arangoa, Xabier Azpiroz, Olatz Dorai.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Santos Etxegia eta Julen Beunza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAIZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Ekainaren 30ean egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

-2021/82 alkate ebazpena onartuz losune Lopez Osinagak egindako eskaera, 2021. urteko zirkulazio zergaren dagokion zatia itzultzeko, 0918JDG matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 44,04 eurokoa da.

-2021/83 alkate ebazpena onartuz Santiago Espinal Tellecheak egindako eskaera, 2021 urteko zirkulazio zergaren dagokion zatia itzultzeko 8810BCY matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 29,36 eurokoa da.

-2021/84 alkate ebazpena obra baimena ematea Juan Jose Beunza Astizi, Gartzarongo 6. Poligonoko 232. Lursaileako bordaren teilatua berritzeko eta obraren aurrekontua 2.472 euro izango dira.

-2021/85 alkate ebazpena obra baimena ematea onartuz Sara Quesada Diaz Aizarotzko Errekaondo 2 kaleko, behe eskubi etxebizitzaren terraza itxi eta egongela haunditzeko, obra honen aurrekontua 3.294,13 eurokoa da.

- 2021/86 alkate ebazpena obra baimena ematea Xabier Maresme Basterretxeari Arraratsko 14. Poligonoko 363. Lursailean dagoen borda eraberritzeko, kontutan hartuta Etxebizitza Ataleko baizko txostena duela eta Ebroko Konfederazioako eskaera bideratu duela fosa septikoa jartzeko. Obra honen aurrekontua 183.858,52 eurokoa da.

- 2021/87 alkate ebazpena onartuz Borja Quintasi Beramendiko 2. Poligonoko 10. Lursailetik 206,66 m<sup>2</sup> bereiztea eta 39. Lursailera elkartzea. Aipatutako lursailen bukaerako azalera 600,76 m<sup>2</sup>koa izango da 10. Lursailari dagokionez eta 1.572,70 m<sup>2</sup> 39. Lursailarena

- 2021/88 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz, Jesus Sanchez Errok egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Olaondo Karriko 3 2 F helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta salerosketak ez duela gainbalioa sortu.

- 2021/89 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz Francisco Javier Rubio Saezek egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Mendialdea Karrika 6B helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.

- 2021/90 alkate ebazpena obra baimena onartuz Berueteko 11. Poligonoko 53. Lursaileko eraikina eraberitzea bi etxebizitza egiteko. Imanol eta Xabier Arraras Arangoak sustatutako obra izanik, udal arkitektoaren eta Etxebizitza Atalaren baiezko txostenekin. Obra honen aurrekontua 307.909 eurokoa da.

-2021/91 alkate ebazpena Onartzea Maite Uterga Doizek egindako eskaera uztailearen 9an, 18:30etatik aurrera herrikoetxeko gela haundia erabiltzeko proiektio bat egiteko.

Erabilera honen tasa 10 eurokoa izanen da.

-2021/92 alkate ebazpena Basaburuko zinegotzia den Julen Beunza Aranori eskuordetzea onartu, 2021/5 zenbakidun ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan; eskuordetzeak ebazpena sinatzen denetik izanen du indarra.

-2021/93 alkate ebazpena baimena ematea Basandereok Elkarteari, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, uztailaren 23an 19:00etatik 21:00etara kolombiako bi emakumeekin bilera egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

### **3.-Mozioak.**

Ez dago moziarik.

Gai ordenetik kanpo, bildutakoen baiezkotza bozkekin gai ordenean alkatearen oporrak eskuordetzearen gaia sartzea adosten da.

### **Alkatearen eskudeordetzea oporretarako**

Alkateak azaltzen du, urtero bezala abuztuaren 3. asteko oporraldia hartuko duela, abuztuaren 2tik 23ra, biak barne eta hortaz Toki Korporazioen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduko (abenduaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bitartez onetsia) 47. artikuluan ezarritakoari jarraituz, jakinarazten du, Xabier Azpiroz Latasa lehen alkateordearen esku utziko dituela, alkate funtzioak.

**Bildutakoek aho batez onartzen dute erabakia eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen dute, behar diren ondorioak izan ditzan..**

### **4- Batzordeen informazioa.**

#### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Uztailaren 25ean Mendialdeko Azoka ibiltaria burutu zen Berueten, jende asko bildu zen eta ekoizleak konten saldu zutenarekin.

#### **Gizarte Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Abuztuaren 13an Ene Kantak taldearen emanaldia izango da Jaunsaratsko polikiroldegian.

#### **Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Eskola garraioa martxan jartzeko familiekin bilera egin da. Hezkuntza Departamentuak derrigorrezko hezkuntzarako jarriko duen zerbitzua aprobetxatuko da ikasturte honetan, Hezkuntza Departamentuko konpromezua delako zerbitzu horretan beharrezkoak diren plazak bermatzea derrigorrezko hezkuntzakoak ez diren ikasleak ere erabiltzeko, beti ere derrigorrezko hezkuntzako ordutegi eta ibilbidera egokituz.

Basaburuaren kasuan erreferentziazko ikastetxea Ultzamakoa izanik, Ultzamako autobus zerbitzua erabili ahalko litzateke, eta hortaz udalak Basaburuko ikasleak Erripara hurbilduko beharko dira han Ultzamako autobusa hartu dezaten.

Beste ikasle batzuei ez zaie egokitzen aipatutako autobusaren ibilbidea beste ikastetxe batzuetan egiten dituztelako ikasketak eta hortaz taxi zerbitzu baten bidez hurbilduko litzaike Basaburutik Irurtzun edo Iruñera. Eskatu zaie Edsa eta Oyarzun enpresei, zerbitzu hauek martxan jartzeko aurrekontua.

### **7- Informazio orokorra.**

- 2021. Urterako hautetsien dieten dirulaguntzaren jakinarazpena jaso da, 17.737 euro dagozkio Basaburuari.

- Osasun programen diru laguntza. Emakume eta haurren programarako 1385 euro onartu dituzte. 534 haurren programarako eta 851 emakumeen programarako.

### **8. Erreagu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:55 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.